

+ Anaitasuna

VII URTEA - N.º 73
Depósito Legal SS. 1.092-1959

Suplemento de la Hoja
ANAITASUNA de Guipúzcoa

Zemendia (1) 1960

Kristiñau Itxas Gaztedia

Ille onen 13-an, zemendiaren bigarren omekean, Bizkai - Gipuzkoetako Kristiñau Itxas Gaztediko militanteak Eibarren batu dira.

Importantzia aundiko batzarra, bere mailan Buskalerriko lenengoa izan dalako, eta bere asmoetan guztiz jurrun joan dalako.

Aspaldion, arraintzale ofizio ta bizimotua evoluziño aundi baten aurrean aurkituena da. Azkenengo gerra mundialaren ostean, ofizio guztiak asi dira arraintzuari inportantzia aundia emoten, itxasoaren neurriak aberastasuna ikusita.

Ona emen zelakoa izango dan evoluziño u amabost urtera orduko, Inglaterra-ko Fishing News errevistearen ustez:

«Laster Rusia-k eta Polonia-k arraintzi flota aundi bat eukiko dabe: konxeladoreak, erdikongeladoreak, faktoria osoak, tamaiñu guztietakoak, eta eundaz barku milla bana toneladakoak.

Orañarte Europa-ko beste naziñoak Rusia baiño atzerago dabilta; baiña alegin tekniko aundiak egiten diardue, komunisteri kompetentzia egiteko, eta edozein arrainluntara joan al izateko.

Amar urte barru, oraingo arraintokiak eraztuta geratuko dira eta barriak billatu bearko, geroago urrunago joan bear izanaren. Orduan itxasorateak luzeegiak izango irean lez, edurrak ez dau valioko arraiña bido kontservetako, eta barku geienak konxeladoreak izan bearko dabe.


Laster arraintzale bizibidea industria-zatu egingo da, eta munduko arraintzale gienak itxasoko langilleak izango dira.»

Evoluziño onetatik milla problema sorriko dira, bata bestea baiño gatzagoa, esabaterako, lanaren gogorregitasuna, onbegonaren bearrizana, irabazien partiziño izena astean beingo deskantzua, erritik,

etxetik eta eleizatik ausentzia luzeegia, arraintzaleen preparaziño moral eta teknikoa, eta abar.

Asi dira organizaziño batzuk problema onekaitik ardurea artzen. Esate baterako. U. N. E. S. C. O. (United Nations Educational, Scientific and Cultural Organization), F. A. O. (Food and Agriculture Organization), O. E. C. E. (Organización Europea de Cooperación Económica). Organizaziño komunistak, euren aldetik, lan ikaragarria egiten dabilta, arraintzu teknikan aurrerena izateko, eta arraintzalearen problemak euren modura ebazteko.

Eta Eleizea, evoluziño onetan, ixil eta 2'garren orrira



Urte gitxi barru ontzi onek benetako problemak izango dabez. Eta eurretako gizonak? Orixe da Eleizearen arraintzalea.

GURASOEN AMAR AGINDUAK

Urte batzuk dirala gertaera xelege bat jazo zan Londres'en. Gau batean, eskola-maixu bat eta bere andrea oso berandu etxeratu ziran, zinetik. Euren kuartuan sartu ziranean papeltxo bat topau eben atean orratz bategaz josita. Eta papeltxo aretan idatzita frase au: «Umeok, gurasoak gabaz etxean egon daitezela gura geunke». Ezan besterako be-ta, barre egin eben biak. Urrengo egunetan ez eban iñork aitatu papeltxo a. Baiña joan ziran egunak, eta beste gau batean, barriz papeltxoa, atearen baltzean zulotxu bat balitz lez. Eta bein eta barriz gurasoen konzientziari dei egiten eutsen ume arek papeltxoen birtatez.

Aitari, maixua zan da, enkueta bat egitea bururatu yakon. Eta ez bere eskolan bakarrik mundu guztian baiño. Mundu guztiko umeen erantzunak jakin gura ebazan. Eta egin be egin ebazan preguntak papel batean, Ingalterra, Canada, India, Australia, Ipar-Amerika eta beste leku askotara bialtzeko. Leku orretako maixu guztieri abisau eutzen al eben arduratsuen egiteko: esateko umeeri ondo erantzuteko, gizonak lez, egiten ebena guztiz inportantea zala, ta abar.

Olantxe egin eben danak.

Jaso direan erantzunetatik autatuaz-eta, onelako amar agindu onek batu dauz Virine andreak, gurasoentzako. Entzun arduraz; eta ikasi, gurasoak, zeuon umeak emoten deusuezan aginduak.

1.—Jarraibideak, amesak idealak, biztu: Batez be iru urtetik sei urtera arte umeari zer izatea on dan, eta gizon bikaiña, benetako gizona, zelan izaten dan erakutsi bear yako. Umearen biotzean txinpartak dagoz eta putz egiña sua bistu leike.

2.—Bere negarretan lagundu. Eta ez galaso egin gurako leukezan gauzetan. Zazpi urteko umeak pozik atarako leukez platerak, etxea garbitzen lagundu gura dau, eta abar. Eta ez esan iñoiz be: «Zoaz ortik, enbarazu baiño ez dok egiten-eta... dana endredetan dok-eta...»

3.—Gozoak izan beragaz. Bigunkeririk, berekoikeririk, be ez; baiña umeari be errespetau egin bear yako, besteak errespetatzen erakutsi gura badentsagu. Ume lotsabakoa, geuk alan biziten erakutsi deutsagulako da lotsabako.

4.—Ez asarratu. Noizean bein bai, onta da asarratzea, baiña ez geiegi.

5.—Bat edo-bat besteak baiño maiteago badozue be, ez agertu besteen aurrean. Asarre egitean, gaiñera, begiratu errurik daukoez, eta asarrea naikoa ezpada, jo edo kastigau. Baiña, beti neurritz.

6.—Preparatu. Ezkondu aurretik ikusi zelan portau bear zareen eta ez iñoiz be aztu.

7.—Ez gogorregi izan. Umea ume da, eta zeozer be umeak lez egingo dau. Zuzendu bai, baiña ez eskatu ezin leikeana, mutilla balitz lez.

8.—Egia esan, beti. Guzurretan asten dan umeak edozer gauza egin leike. Eta itauntzen, preguntetan, deusuen danari erantzun, alan ikasten dabe umeak eta. Gurasoak izan bear dabe umearen lenengo maixuak.

9.—Gurasoak beti batizango dira. Aitak agintzen dabenari amak ezezkoa emoten badeutso, edo amak kastigatuari aitak parkatzen badeutso, umeak barre egingo dabe laister.

10.—Gurasoen bizikera, ispillua lakoa da umientzako. «Umien zentzuna etxean entzuna», esaten da. Eta egi-egia, gurasoengan ikusten dabena egin gura izaten dabela umeak. Umien aurrean zagozanean, beintzat kontuz ibilli zeuon berba eta egitetan.

Bete amar agindu onek, eta berez etorriko yatzue ondorengo ederra semeetan.

Jose Azurmendi


lenengo orritik dator

geldirik egongo ete da? Ezer egin barik geratuko da, erlegiño bako organizaziñoal gauzak euren erara komponentzen dituen bitartean? Ez orixe! Evoluziño onek lenengo pausuak bakarrik emon ditu oraindiño; eta Eleizea sasoi onean dago oraindik, arrain-tzale mundua Kristorentzat irabazteko.

Orrexetarako batu dira Eibarren Euskalerriko Kristiñau Itxas Gastediko militanteak. Eurak dira Eleizearen mandataririk. Eurak eroan bear dabe itxasora Kristoren evangelioa eta Eleizearen dotriña. Eurak ebatzi bear ditue, Eleizearen izenean, itxasgizonen problema guztiak. Eta orretarako batzandu dira Bizkai-Gipuzkoetako mugak erri orrean, alkar ezagutu e' o, aurreranz batera lan egiteko, euskaldun itxasgizonen bizimodu barria mailla guztietan kristiñauki moldatuteko.

Berriatua

GURE BEI ONRAUAREN JENIYOA TA JOERAK



Beia ez da esnea egiten dauan makiña arrigarri bat bakarrik; ba-dau nagositasunaren kontzientzi bizi-bizi bat be. Gizonaren adiskidetasunagaz poztu egiten da, ta zu bere gustokoa bazara esne geiago emango dizu.

Urte batzuk ba-dira Frantziko presidente René Coty'k esnea emoten geien zan bei bat jente guztien aurrean goratu ebala musturrean mun emonaz; eta Estados Unidos'en ba-dira jeneral askok baiño medalla geiago daukezan beiak. Eta au dana ez iat txarto iruditzen. Pentzatu eizu apur batean beia gizonarentzat zer dan... Ez dozu gu-gaitik esne-bei batek baiño geiago egiten dauan abererik. Estadistikak agertuten deuskuenez urte bateko esnea, litroko botelletan sartu, ta illeran jarriko bagendu, 400 buelta baiño geiago emongo leukioez munduari. Erdia baiño geiago edaten da. Beste asko mantekilla, gaztai ta olakoak egiteko izaten da. Sendagille ospetsu batek begira zer diñon: "Alimentu guztietan ez dago esneak beste importantzi daukonik eta guretzat obeagorik".

Gaurko esne-bei onok, benetan, esnea emoteko gizonak egiñeko makiñak dira. Gizonaren laguntza apartekorik gabe, beiak urtean txal bat eta bera manteniduteko 165 litro esne emongo leukez. Baiña gizonak laguntza apartekoak ipiñi deutsozenetik urtean txal bat emoten dau gitxi-gora-bera, baiña amabost edo ogei txal manteniduteko beste esne, ta ez aste pare batean bakarrik, amar illabetea.

Holanda, Beljika, Dinamarka ta Suiza munduan esne geien daukenak, bei bako-tzeko kontua atarata. Gaur Norteamerika beiak 2.560 litro emoten dauz: 1910'an emoten eban doble ia. Michigan'en "Holstein"

errazako bei batek 18.840 litro emon dauz urte batean. A ze iturria!

Bei onak kilo ta erdi janaritik kilo bat esne ataraten dau. Baiña erazterakoan bere errapeko esneatzaz beiak berak aginduten dau. Ondo ezpadago, edo erazten diñardua-na bere gogokoa ezpada esne asko gorde leike.

Gauza onetan nagosi dan gizon jakintsu batek au diño: "Ez da abererik gizonaren adiskidetasuna beiak beste gura dauanik". Nik ezagututen dotan bei batek euneko irurogei geiago emon eban kortatik beti orroaka ebillen morroi ziztrin bat kendu ebenean eta bere gustoko gizon batek artu ebanetik.

Guzurra dala dirudi, baiña egia da.

Bei batek esnea batzeko orduan ezagututen ez dauzan gizon, txakur eta katuak ikusten ba-dauz kortan, ba-leiteke esne gitxiago emotea, ta bere naigabeak jarraituten badau agortzen asten da.

Orain urte asko ganadutegiko morroi batzuk eurek olgetarren, beiak erasteko orduan, esku-radio orretako bat eróaten ebela eta musikagaz esne geiago emoten ebela konturatu ziran. Gaur korta aundi orretako asko dira beiak erazterakoan radioa ipinten dabenak.

Atzazkaldun abereen artean laugarren zuurrena ei da beia. Lenengo txarria, mando-emea bigarren eta gero zaldia. Laugarren lekuan, bada, beia; ala ta guztiz be tontotik gitxi dauke beiak. Bein baiño geiagotan ikusiko zenduzan euren adarrekaz ate ta kaxak iditen. Larretin pilloan datozanean asko izan arren be, laister aurkituko dau bakoitzak bere aska.

Ona emen gure beiaren gauza arrigarrie-

4'garren orrira

URTE GORDIÑAK

I. - Neskantzat.

Bai, lenengo aldiz pintau be egin da-ta. Bere aurpegia kolore ori bage askoz be dotoreago egongo litzake. Baiña bai zera! Besteak be egiten dabe-ta... Bein ezpanak gorritzen asi ezkeru, neska egiña ei dago. Ba-da, ba, asteko ordua. Baiña ezagun dau lenengo aldiz oraingoan pintau dituala. Ezpanak ezezik okotza eta serra be ia pintau ditu-ta. Barragarria...

Bera konturatu? Bai zera... Ez dauko orretan pentsetako astirik, beste ames asko daukoz buruan. Mutillak be berari begira dagoz. Orain arte ez eutsen kasurik egiten, eta ara: aurten, atzamarra luzatuta, berari begira daukoz zoraturik. Inguruko mutil guztiak ez danke beste amesik (ala uste dau beintzat). Zeorzer pentsauko baleu bere usteak neurtzeko. Baiña gatxa dala gero sa-soi orretan pentsetea.

Ez deiola gero iñork lotsatia edo bildurtia danik esan! Edesciñeri *ika* egiten deutso berba. Dantzara deitu deutsela? Bai joan be ezezko asko barik. Berbeta gordin antzekoak? Tira beti zortzi urteko umeak legez izan bear ete dogu ba! «Abe Mariterako» etxera? Ori zaar eta umeak bakarrik.

Baiña, neskato, ondiño etzara ume bat baiño. Gorputzez azi zara, aldatu zara, baiña zure arima gaztetxo dago ondiño, umeen arimak legez tximurbagea dirudi, zorionez tximurbagea. Oraindiño umeen amesak darabilkuz. Eta munduko arriskuen erdian ezaguera eta laguntza barik, bakarrik aurkitzen zara. Kontuz!!!

Amabost urtegaz ogei urteko baten itxurea artu leiteke, baiña izatez eta ezangueraz ezin eldu orrenbesterañio. Itxirain. Etorriko da ordua. Asi yatzuz biotzaren taupada gogorak, orain arte baiño ariñago dabilela esan leike oraingo ontan. Jakiña, sentidu dau zure biotzak gauza espezialen bat, zeozer berezia. Ez da arritutekoa, Jaungoikoak berak sortu deutsu zeozer ori. Ez dozu baztertu bear sentimentu ori, ona ta zintzoa dalako. Baiña Jaungoikoak sortu deutsun sentimentu ori itxi eltzen, ez ordua baiño lenago alperrik gastau.

Iñaki bai mutil dotorea e.a argia. *Ves-*

pa ta guzti, eta ez oso beartsua be. Kontuz! Ez emon itsu-itsuan iñori zure maite-sunik, maitasun ordeze baleike sentimentu utsa aurkitutea-ta. Izan zaitez beti maitekor eta alai... eta kittu! Demporea bear dozu maitasun ori aztertu eta ezagututeko.

Mutil lotsabako askok zulakoari gura dabena egin eta aspertuten diranean baztertu egiten dabez. Euren griñak asetzeko bakarrik gura dabe laguna. Zure maitasuna gauza aundia da beste barik lenengo eske yatortzunari eskeintzeko.

Onegaz etzaitudaz betiko atzeratu gura ezta ethezuloan sartuta urten barik egor bear dozunik esan gura be. Kontuz, ardura aundiz ibiltzeko baiño. Asko aurreratuta yatzuz, baiña asko orretatik batek maiteke zaitu benetan, nonoiz edeiko yatzu eta agertuko dautsu bere egizko maitasuna. Eta zure biotzak be beste guztien gainetik maitatuko dau bakar ori. Bakar orixe izango dozu zure geroko betiko laguna. Orrexegea egingo dozu famili bat, zu famili ortaka emaztea eta ama zareala.

Gorde zure maitasuna ondo eldu arte. Eta ondo eldutakoan Ezkontzako baratzean emongo dauz maitasun orrek frutu ugariak.

Dionisio Arruti

5garren orririk dator

netako bat: Nagositasunaren ezagutze bier bat. Bei-pillo batek bere erregeña dauala esan genezake: bei bat beti lenengo ibillu da kortara edo larrera doazanean: iñork berari murrugarik ez deutzo egingo.

Zelan elduten dira erregeña izatera? Gribanetan murruga geien dalako, banaka banaka danak menperatzen dauzalako. Tu bein lenengo lekura elduten danean, bere bizitza guztian nagosi izango da. Zartutakoan murrukan besteak baiño gitxiago be da be bai. Errespetoz begiratuten deutze besteak. Beste korta bateko beia izan bear dau erregeñari murrugarako arpegia emongo deutzona. Ez al dezu erreparau zu zure beien artean?

Beiak alimentua baiño zeozer geiago be emoten deusku. Esnea galdutakoa, mamiña lez geldituten dan orregaz, amaika gura zu egiten dauz gizonak: papela leundu, griñaturak, goma, botoi eta lanazko antzeko telea be bai.

ARZELUS'tar AINGERU

Afrikako bat European

Michael Horatczuk, Austriako jesuita bat dozu. Ointzu, umorez beteko liburu bat argitaratu deusku. Jesuita au Austriarra da, baña liburu onetan Afrikako baltz bat izango balitzake lez agertzen iaku. Bere guzurrezko izena Mikel Obolungwe da. Michael Horatczuk jesuita, Mikel Obolungwe gazte baltzaren azalpean, Afrikatar bat balitzake lez, Europara dator mediku karredea ikastera. Vienan egiten dauz bere ikasteak eta uri onetatik karta baltzuk eskribiduten dautsoz bere erriko mixiolariari. Karta orretan Vienan eta Europa guztian ikusi dauzan gauzak kontetan dautsoz. Gazte au mire eginda azaltzen da, emengo gauzekaz. Ara emen bere kartetako bi Aita IÑAKI ALBIZUK euskeratuta.

Viena zoragarria da:

Vienara etorteko gogo bizi-bizia neukan aspalditxoan; Lagun aundi bat daukot bertan eta beti neukan Vienara etorteko esanka. Semmering errira arte gogaitgarria izanda neure bialjea. Eta danak neuri begira egozan, ago-zaba'ik. Azkenean umetxo bat urreratu iat bere eskutxoan karamelo bat danala, eta karameloak ganean eukiten daben «papel de plata» ori eskeiñi daust. Nik ez dot konprenitu umetxoaren asmoa, baña bere amak esan daust eskolan ikasiko gauzak dirala. Eskolako maixuak sellu eta onelako gauzak batzen ei dauz baltzari bialduteko; eta umetxoak uste eban guk jan egiten doguzala «papel de plata» eta selluak. Baiña nik erantzun deusat ni bataiatuta nagoala eta sakramentu au artu ezkeru Afrikako baltzak papel orren barrukoa jaten dogula. (.....)

Eleizan:

Gaur mezatara izan naz. Zuk esan eustazan (mixiolariari diñotso) neure erriaren egarria iatortanean eleizara joateko, eta bertan neure errian egongo banintz legetxe ikusiko nebala dana. Asmo orregaz joan naz eleizara; baiña orain neure erriaren egarria biziagotu egin iat. Zurtz eginda gelditu naz eleizan: andrazkoak gizonetakoak baiña asko be ugariagoak dira emengo eleizetan.

Neure aitaren agotik zarritan entzuna neban nik, mixiolariak lenengo bider zelan etorri ziran nire errira. Erriko nagosiak zur eta errespetoz entzun eutsen mixiolariari euren presentaziñoko herbak. Gero berak berba egin eutsen:

«Zuen Jainkoa ona da». Ordutik aurrera erriko nagosia bere gizonetaz mixio-

lariaren berbea entzutera joaten zan egunero. Azkenean danak bataioa artzeko prest egozan. Baña mixiolariak andrazkoeri be dotriña erakutzi ta bataiatu egin bear zirala esan ebanean, erriko nagosiak ezezkoa emon entzan. Eta herbaldi aundi bat egin eban, esanez:

«Badakit zuen Jainkoa gizon guztien Jaun aundia dana eta laster gure Jainkoa be izango dala. Guk guztiok obedesidu gura deutsegu. Berak aintzen dabena ona dalako, eta gure jainkoak gura dabena baiña obeagoa dalako. Baña nori tokaten iako zeozer esatea: gizonak ala andreak...? Nor da nagosia? Gizona ala andrea? Nor da gerra eta bakean erabakia artzen dauana? Andrea ala gizona? Sal-erosteak nork egiten dauz? Gizonak ala andreak? Nork zuzentzen dauz erriko arazoak? Gizonak ala andreak?...»

Erriak ago-batean eta oso-osorik «gizonak, gizonak», erantzun eban. Eta erritar danak dantza baldar batean ara ta ona asi ziran, eta mixiolaria artekadu gelditu zan.

«Onela ba, jarraitu eban jefek, gauzak ondo ta zuzen joan daitezcan lenengo gizonok artu bear dogu Kristo. Eta zuk, aita mixiolari agurgarri orrek, lenen gu bataiatuko gaitzuz; eta gero andrazkoak... Gauzak zuzen egin bear dira.»

Ori pentzetan egon naz, Aita, ain gizon gitxi eta andra asko eleizan ikusi dotazanean. Eta egozan gizonak ganera etzezan nagosi antzik. Eta neure barrurako esan dot: «Emengoak fededunak badira eta arpegi bikoak ez badira, eta zeresanik ez badanke, emen ez dagoz gauzak ondo. Erri onetako goraberak ez dira Jainkoak gura daben lez ibilliko seguraen. Ez da Bere nai ona be-

HOLANDA

«Sasiteologoen» kontra Haarlem-go obispoa

Ogetabost urte dira aurten, Holanda-n San Aldeberto-ren Alkartasuna fundatu zala. Soziedade onek Holanda-ko katoliko laikoak batzen ditu, asuntu intelektual eta sozialetan jarduten dabena. Agostuaren azken egunetan ospatu ditue Alkartasunaren urrezurizko ezteguak. Ori dala-ta, Monseñore van Dodewaard, Haarlem-go obispoak verba egin deutse Holanda-ko obispoen izenean; eta esan deutse, teologia ikastekotan, sakonki estudia daiela, sasiteologoak izan ez daitezana. Teologia ez da gauza erreza, afirmatu dau obispoak; eta olako estudio sakonak ez dira egokiak sasiestudianteentzat.

Obispoaren verbaldiak zerikusia eukon, aurreko egunean van Voorst tot Voorst baroiak, Alkartasunaren presidentek egiñiko diskursuagaz. Bein ta barrero esan eban onek bere itzaldian, eklesiastiko eta laiko askoren artean urduritasun apurtxu bat sortu dala, Jerarkiagaz errelaziñoak direala ta ezteireala. “Ez ete da etorri —preguntatu eban berak— fidelak euren obispoakaz alkar verba egiteko sasioia? Laikoak ideia valiotsuak emon leikiez, esate baterako, ekumenismoaren gaiñean, obispoen eginkizun, umeen edukaziño eta kristiñau politikari buruz.”

Verbalariaren ustez, ideien artu-emon au deskonfiantza bape barik egin bear litzake fidelen eta obispoen artean. Jerarkiagazko errelaziñoak, humanoagoak izan bear lirake; eta laikoak euren eritxiak agertzeko posibilidadade geiago euki bear leukie. “Gure naziñoko eleizagintariak —esan eban azkenean van Voorst tot Voorst baroiak— ez deuskue eguno larregi eskatuko: gu prest gagoz edozetarako.”

Diskursu onen ostean, etorri egin bear obispoen erantzuna. Eta etorri zan urrenguegunean. Laiko dirigenteak —esan eban bere itzaldian Monseñore Dodewaard-ek— fedegaz zerikusi aundia dauken gauze gaiñean zerbait esan gura dabenean, kooperatu egin bear leukie teologo profesional bategaz. Gure errian asko gustetan jakoz gertari teologiaren gaiñeko diskusiñoak; eta orregaitik kontuz ibilli bear dozue danok sasiteologoak ez izateko.

“Laikoak ezin dabela ezer egin? Lan egiten ez deusiela itxiten?” Sarritan entzundot keja au —esan eban azkenean obispoak—; ez da ori egia baiña. Eleizetara alde lan egiteko, ez bakarrik permisua bainamena, obligaziñoa be ba-daukozue. Kibatu egin bear dozue teologoak eta presioziño egin, gaur eguneko problema goriatzazko, ainbat ariñen soluziñoa emon deioeen.

Berriatua

5'garren orritik dator

teko. Emen gizonak aginduko dabe eta gizonen borondatea ez da beti ona...»

Eleizatik urtetarakoan gizon moskor bati ikusi dot. Eta onek illunago jarri dau oraindik neure barrua. Andra asarretu bat joko kon bere atzetik txilio ta arrantzaka. Ber emaztea izango zan seguruen. Azkenean emon be emon deutsoz musturreko bi. Antza e zan indar aundiko gizona, ezer be ez dantzoz erantzunda, eta andraren aurretik okil okil joan da. Gure erriko gizonen artean jazo balitz au, urrengo domekan gizon orret lagunak sartenean erreta jan egingo leukie olango andrea...!

Nik onek gauza danak ikusita auzo pentzau dot:

«Emen andrazkoak aginduko dabe bada, eta ondo deritxat ainbeste andra elizari zan ikustea...!»

Mikel Obolungwe

CUBA

SANTIAGO-KO ARTZOBISPOAK: "GOBERNUAK BAPEZTU GURA DAU ELEI-ZEAREN INFLUENTZIA"

Monseñore Enrique Pérez Serantes, Santiago de Cuba-ko artzobispoak, beste karta pastoral importante bat irakurri eragin dau, urriaren 2-an, bere diozesiko eleiza guztietan.



Monseñore Enrique Pérez Serantes
Santiago de Cuba-ko artzobispa

"Cuba-ko erriak —diño artzobispoak— ez eban sekula pentsatuko, komunismoaren menazua ain aundia izango zanik... Orain argiro ikusten doguz gauzak. Gobernuaren alderdikoak, ainbat ariñen ezerbeztu gura dabe zearo Eleizearen influentzia... Konfusiñozko itxaso batek iruntsi gaitu; eta urten egin bear dogu, al daigun lasterren, naste-borraste onetatik...

"Orain —diño beste leku baten artzobispoak— traidoretzat artzen dabe komunismoaren kontra dagoan edonor. Komunistak bakarrik dauke naziñoکو gauzen gaiñean verbaegiteko eskubidea.

"Bertoko komunisten eritxiz, Cuba-ko katolikoak bigarren maillako erritarrak dira, valore espiritualetan siñistuten dabela-

ko, eta euren ideologia Rusia-tik ez dato-rrelako. Katolikoak, orregaitiño, ez dauke zetan komunisteri begira egon, abertzaleak izateko. Guk beti esango dogu; Cuba bai, komunismorik ez, esklavutasunik sekula bez."

Eta segiduan: "Ez funtzionario amerikanoak, ez jalangistak, ez francotarrak ez deuskue Guri Geuri ezetan indar egin, au edo ori egiteko, a edo bestea esateko. Baiña, Nortamerikanoen eta Sovietikoen artean elegidu bearکو bagendu, ez geunke ezetariko dudarik eukiko."

Gero, justizia ta alkartasuna eskatuten dau artzobispoak, eta olantxe amaituten dau bere karta pastoralala.

DEBEKATUTA RADIO TA TELEVISI- ÑOZKO EMISIÑO KATOLIKOAK

Naziñoکو agintariak galerazo egin ditue katolikoen radio ta telebisiñozko emisiño guztiak. TV ordua, Doktore Lasaga-k egiñiko konferentzien ostean prohibidu dabe. Cuba-ko katoliko intelektual ospetsu onek baten baiño geiagotan verba egin dau TV-tik, eta guztiz argiro erakutsi dau katolizismoaren eta komunismoaren artean dagoan aldea. Gobernuکو funtzionario baten esanez, Doktore Lasaga-ren verbaldiak oso objektivuak izan dira, momentu onetan egokiak ez baiña.

Radiozko emisiñoa, Kristiñau Langille Gaztedikoak edo jocistak emoten ebena, ezetariko explikaziño barik galerazo dau gobernuak.

LA QUINCENA ERREVISTEAREN ZUZENDARIA, LENGOA DA

Gobernuaren aldeko periodiko batzuk zabaldu dabe, Aita Ignacio Biain —La Quincena errevista famaduaren direktorea— Eleizako agintariak ixildu egin dabela.

La Quincena, Cuba-ko katolikoen errevistarik printzipalena da; eta oraiñarte beti egon da Errevoluziñoaren alde, gauza askotan bere kontra egon izanarren. Baiña aspaldion, asko aldatu da Cuba-ko panorama politikoa; eta La Quincena errevistek be, beste errumbu bat artu bear izan dau. Alan ta guztiz-bere, ez da egia gobernuaren aldeko periodikoak zabaldu dabena.

Ona emen zer diñoan La Quincena-ko artikulu batek, oraiñsurengo errezibidu dogun azkenengo numeruan: "Pinar del Rio-

AZERITXU UME ZURTZA

(Erderatiko ume-ipuiña)

Oraindiño jayoparri zala, gure azeritxua ume-zurtz geratu zan: bere gurasoak bat-batera, eiztarien baten eskopetapean jausi zirean.

Zelanbait mantenduteko bere atx-zulotik urtetan ausartzen zan bakotxian, basoko beste abere eta pizti txikiakin adiskidetu eta ume-antzera, jolasean ibilli nai izaten eban, baña guzti-guztiak, euren artera, apal-apalik bazan be, aurreratuten zan bakotxian, iges-egiten eutseen, eta len baizen bakar, illun eta negarrez geratzen zan...

Bein baten, baña, koneju gaztetxu bi idoro zituzan, eta eurok iñoiz azeririk ikusi ez-ebelako-edo, ezetariko keska ez bildur barik beinguan lagun-egin, eta, irurak, poz-pozik, algara artian, jolasean, olgetan jardun eban...

Eguzkiak, bere sartalderantz kuku-egin, eta illuntzea etorrela ikusi ebenian, konejutxu batak esan eban:

—“Laster gaba jatorku-ta, etxera joan bearko dogu, azerien batek arrapatzen bagaitu, galduak gariala, esan deusku geure amatxuk-eta.

—Neu bere, erantzun eban azeritxuak, gabak asko bildurtzen nau-ta, goazen irurak...

Eta konejutxu biak, eskutik artu, eta bera erdian zala, saltoka ta alai, koneju-txakolarantz abiatu zirean...

Koneju-amandreak, bere seme kutuntxu biak, azeriaren eskutik etozela ikusi ebanian, asko artegatu, larritu eta ikaratu zan, baña ¡bai arin! nasaitu eta baretu bere, azeritxuari entzun eutsanian:

—Gutziz gautu orduko eta azeri biurrien

batek jan eztaizan, emen dakartsudaz zeure semetxu biok...

Koneju-amak, azeri txiki axe, biotz onekua eta errubakua zala laster ikusi eban, eta itandu eutsan:

—Da zeu, nogaz eta nun bizi zara ba...

—Munduan bakarrik nago; eztaukat eta aitarik ez amarik, eta atx-azpiko leza txiki baten gabak igaroten dodaz... eta, eguneez bere, beti bakar-bakarrik, al dodana janda erdi-gosez, nora jo eztakidala ibiltzen naz...
—¡¡A gixajua!! Zutarren antzik eztaukazu-ta, geurian geratu zaite, emen beintzat aterpea eta etxuteko bedar sikua, eta asomiarbi, zanori eta bedar-bigunak jateko, etxatuz faltauko-ta...

Gure azeri umezurtza barazki oneetarin oitu zan... eta arrezkero, azeri-lege guztiak aztu, eta guzti-guztiak maite ebelat, zaar-zaar eginda il zan arte, antxe, koneju artian bizi izan zan...

BELU - Gernika

7garren orritik dator

ko obispoak dei egin deutse frantziskanoeri, bere diozesian lan egiteko. Dei oneri erantzunik, Ordenako nagusiak berata bialdu dabe Aita Biain, demporada baten obispoari lagundu deion. Antxe egongo da, apostoladua egiten, kristiñau fedetara Eleizearen dotriña soziala zabaltzen. Eada egia, Aita Biain-eri iñongo presiñonik egin jakonik, edo "naitanaiezko vakaziñoak" artzen dagoanik. Aita Biain libre da verba egiteko eta idazteko, eta oraindiño karren bera da La Quincena-ren zuzendaria, momentu onetan Habana-n egon ezarren."

Aita Biain oñatearra da, eta Cuba-ko frantziskano guztiak —eun baño geiagoeuskaldunak dira.

Berriatua